

Garraio jasangarriko eskaripeko
zerbitzua Arratiako Ibarrean

bideon

ARRATIÁN

herriguneetara
hurbiltzen zaitugu

ikastegietara
hurbiltzen zaitugu



PROBA
DOAN

hurbiltzen
zaitugu, zatoz

www.bideonarratian.eus

94 471 46 24



**ARRATIAKO YDALEN
MANKOMUNITATEA**

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral



● Zer da **bideON ARRATIAN** eskaripeko garraio-zerbitzua?

bideON ARRATIAN Arratiako Mankomunitateak Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzarekin sustatutako eskaripeko garraio-zerbitzua da. Arratiako ingurune sakabanatuei ematen die estaldura, eta 65 urtetik gorako pertsoneri, eskualdeko Unibertsitateko, Helduen Heziketa Iraunkorreko eta LHko Goi Mailako ikasleei, desgaitasuna duten pertsoneri eta mendekotasuna egoeran daudenei gertutasuneko garraio-zerbitzua eskaintzen die.

Norberaren ibilgailuaren ordezeko zerbitzu honek, ohiko garraio publikoaren osagarri, eskaripeko taxi zerbitzua eskaintzen du, abiapuntu pertsonalizatua duena, eta aurrez ezarritako taxi linea bat (abiapuntu eta helmuga finkoak dituena).



● Norentzat da?

bideON ARRATIAN garraio jasagarria hiru talderentzat da:

- Arratiako Mankomunitateko 9 udalerrietako batean errolatuta dauden **65 urtetik gorako pertsonentzat**.
- Arratiako Mankomunitateko 9 udalerrietako batean errolatuta dauden eta Unibertsitatean, Helduen Heziketa Iraunkorreko edo Lanbide-Heziketa zentro batean matrikulatuta dauden **ikasleentzat**.
- Arratiako Mankomunitateko 9 udalerrietako batean errolatuta dauden **desgaitasuna duten pertsonentzat eta mendekotasuna egoeran daudenentzat**, baldin eta desgaitasun-ziurtagiria edo mendekotasun-balorazioa badute (adin-mugarik gabe).

Zerbitzuak

65 urtetik gorakoak, desgaitasuna duten pertsonak eta mendekotasuna egoeran daudenak

Taxi partekatua. Etxearen eta herriguneen arteko hurbiltasun-lotura.

Eskaripeko taxi-zerbitzu hau etxetik Arratiako udalerrietako herrigunereren batera eta alderantziz joan behar duten 65 urtetik gorakoentzat, desgaitasuna dutenentzat eta mendekotasuna egoeran dauden pertsonentzat da, funtsezko zerbitzuetara jo behar dutenean, hala nola bankura, medikura, farmaziara, supermerkatua, udaletxera eta abarrera, baita Galdakao-Usansoloko Ospitalera, Galdakaoko Anbulatoriora eta Arratiako Egoitzara ere.

Unibertsitateko, Helduen Heziketa Iraunkorreko eta LHko Goi-mailako ikasleak

Taxi partekatua. Etxearen eta ikastegiaren arteko hurbiltasun-lotura.

Eskariaren araberako taxi-zerbitzu hau Arratian erroldatuta eta unibertsitatean edo Helduen Heziketa Iraunkorreko edo Lanbide Heziketako zentroetan matrikulatuta dauden ikasleei zuzenduta dago, etxetik ikastegira joan daitezen, eta alderantziz.

Zerbitzuak ikasleak etxean hartu eta bi lekutara hurbiltzen ditu:

- **Lemoa:** zerbitzuak Euskotrenen geltokira eramaten ditu.
- **Zornotza:** zerbitzuak Bizkaibuseko geltokira hurbiltzen ditu.

Zer prezio du?

Ibilbideek **bidaiako euro 1eko** kostua izango dute, betiere, Arratia barruan egiten badira. Arratiatik kanpoko ibilbideek **bidaiako 1,5 euroko** kostua izango dute. Zerbitzu konbinatuaren kasuan, preziorik altuena izango da ordaindu beharrekoa.

Erreserba egiten den unean ordainduko da, txartelarekin edo eskudiruarekin birkarga daitekeen diru-zorro birtualaren bidez.

Nola erregistratu naiteke?

Erregistroa bide hauetako batetik egin daiteke: telematikoki, **bideON doako aplikazioaren** bidez; telefonoz, **94 471 46 24** zenbakira deituz, edo aurrez aurre, jendearen arretarako bulegoan.

Nola erreserbatu dezaket ibilbide bat?

Ibilbidearen erreserba **bideON aplikazioaren** bidez egin daiteke, **94 471 46 24** telefonora deituz edo lgorreko jendearen arretarako bulegora joanez.

Nola funtzionatzen du zerbitzuak?

1. Ibilbidea 24 ordu baliodun lehenago erreserbatzen da aplikazioaren bidez, bulegoan edo telefonoz.
2. Gidariak bidaia-eskaera jaso, eta bezeroa hartzeko hitzordua programatzen da.
3. Bidaiaria gertuen dagoen geraleku birtualean jasotzen da, bere kokalekutik minutu batzuetara oinez.

Oharra: bidaia beste pertsona batzuekin partekatu ahal izango da, horrela jasangarriagoa eta efizienteagoa izango baita.



bideON doako
aplikazioa



Jendearen arretarako bulegoa

Lehendakari Agirre 11 / 48140 Igorre (Bizkaia)

94 471 46 24

Arreta astelehenetik ostiralera, 8:00etatik 15:00etara.



**ARRATIAKO UDALEN
MANKOMUNITATEA**

Bizkaia
foru alundia
diputación foral